

Jeiki Fundazioa



Gasteizko elizbarrutiak, Caritasek eta Molinuevo Fundazioak sortu zuten 1987an Jeiki Fundazioa. Ongintzazko izaera daukan erakundea da, eta drogaren mendeko pertsonekin eta haien senideekin lan egiten du, prebentzio, laguntza eta gizarteratze-programen bidez. Gazte eta nerabeen prestakuntzan droga-mendekotasunaren gaiari leku gehiago ematea eta beharizan sozialak dituzten pertsoneri zein gizarte-bazterketa egoeran daudenei arreta eskaintzea dira bere egitekoak.

Besteak beste, Vital Fundazioarekin daukan hitzarmenari esker, **Hazgarri programa** aurrera atera daiteke. Prebentzioa eta esku-hartzea ardatz duen proiektu integral bat da hori, 14 eta 21 urte bitarteko gazteentzat, haien familientzat eta eskolako eta komunitateko gizarte-eragileentzat. Programaren helburua argia da: nerabeen garapen osasuntsu eta autonomia ahalbidetzea eta haien inguruko pertsoneri laguntzea, prozesu horretan haien ekarpena ere egin dezaten.

Horrekin batera, akordioan aurreikusitako baliabideen zati bat Jaiki Fundazioaren **harrera-zentro**amantentzeko bideratzen da. Erakundeak adikzio arazoren bat daukaten pertsoneri eta haien senide eta ingurukoei eskaintzen dizkien bestelako tratamendu-programetarako sarbidea da zentro hori.

Informazio gehiago www.jeiki.org webgunean.